

LEIHOTIK

N° 7

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BERRIPAPERA /
BULLETIN D'INFORMATION DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE
1999ko URTARRILA-OTSAILA / JANVIER-FÉVRIER 1999



AITZINSOLASA

Hizkuntza kontseilua Euskal kultur erakundearen ?

Duela bi urte, Euskal herriko antolaketa eta garapen eskeman, hizkuntza kontseiluaren eraikitzea proposatua izan da. Geroztik, gai hori aintzen aho mihitan ibili arren, guti eztabaidatua izan da, bereziki ikusteko zer izan behar lukeen xuxen egitura horrek. Azkenik, Euskal Herriko Hautetsien kontseiluak gutun bat bidali digu, proposamen batzua aitzinatuz, besteak beste hizkuntza kontseilu hori Euskal kultur erakundearen babesean koka dadin. Gure lehen urratsa elkartearen* biltzea izan da, beren iritzia eman dezaten, horrelako erabakiek amankomunak izan behar baitute. Lehen bilkura bat egin ondoan, partaideek elkarteetan eztabadatuko dute eta ondotik, ikusmoldea emanen. Ondorioz, egin behar berri horrentzat dirulaguntza bereziak segurtatuz, nola gure helduden administrazio kontseiluak, hala martxoaren 27ko biltzar nagusiak trenkatuko dute Euskal kultur erakundeak, artebide gisa, Hizkuntza kontseiluaren ardura har dezakeenez. Dena den, erabakiak erabaki, euskararen aldeko urrats guziki ikertzekoak dira, zuhurki.

ÉDITO

Le Conseil de la langue basque : une nouvelle étape

Rapports Poignant, Carcassonne, la signature éventuelle de la charte européenne par la France : les langues régionales sont sous les feux de l'actualité.

En Pays Basque, les choses bougent également. Faisant référence au schéma d'aménagement et de développement du Pays Basque qui inscrivait le Conseil de la langue comme "un dispositif essentiel permettant le soutien et la promotion de la langue basque", le Conseil des élus du Pays Basque sollicite officiellement la création de cette structure "au sein de l'Institut culturel basque dont les missions statutaires sont culturelles, patrimoniales et linguistiques".

Avant de répondre au courrier adressé par Monsieur Lasserre, nous consultons les autres partenaires associatifs* du Conseil de la langue pour discuter avec eux sur les propositions faites par le Conseil des élus.

Après une première réunion à l'I.C.B. le 4 février, ceux-ci doivent en débattre au sein de leurs associations et faire connaître très prochainement leur position.

Il nous appartiendra ensuite de prendre une décision pragmatique, tant au prochain Conseil d'administration qu'à l'assemblée générale du 27 mars, après avoir négocié des financements supplémentaires qui seront destinés à cette nouvelle mission.

Signalons toutefois qu'il s'agit d'une étape intermédiaire, car les applications législatives du rapport Poignant peuvent faire évoluer la forme même du Conseil de la langue, celui-ci ne pouvant se concevoir à moyen terme que dans le cadre de la politique linguistique globale menée par l'Etat.

L'heure est donc au débat avec les associations, et celui-ci est nécessaire, car il s'agit bien d'un projet collectif qui doit impliquer activement tous ses partenaires pour un seul et même objectif : créer des outils performants au service de l'euskara.

Pantxoia ETCHEGOIN

*Seaska, Euskal haziak, Ikas-bi, Ikas, A.E.K., Euskal konfederazioa, Euskal Herriaren euskaraz, Euskal iratiak, Euskaltzaindia, eta Garapen kontseilua, Herriaren arteko sindikatuen "kultura komizioa".

**Euskal kultur erakundearen
BILTZAR NAGUSIA
Martxoaren 27an,
10.00etan IZPURAKO
Faustin Bentaberri salan**

**Samedi 27 mars, à 10 h 00
à ISPOURE (salle Faustin Bentaberri)
ASSEMBLÉE GÉNÉRALE
de l'INSTITUT CULTUREL BASQUE**



"Xalbador : bat-bateko mirakuilua"

Xabier Amurizaren eskutik

Euskal kulturak daukan berezitasun bat azpimarratzekotan, dudarik gabe, bertsularitza datorkigu gogora. Eta bertsularitza aipatzen dugularik, kantuari pentsatzen dugu, bertsulariak, gehienetan, bere hitzak kantatzen baititu, eta hanbat hobe, botz ederra duelarik !

Mendez-mende, Jainkoak daki zenbat bertsu kantaturik izan den ! Asko eta asko haatik, haizeak behin betikotz eraman ditu. Beharrik, bertsu hunkigarrienak bederen jende zenbaiten memorian gelditu dira edo/eta euskaltzale suhar batzuek idatziz ezarri dituzte..., azken urte hauetan aldiz, tresna berriari esker gauzak errextu direlarik.

Euskal Herriko hainbat plaza kurrutu zituen Xalbador zenaren bat-bateko bertsuak ere, han-hemenka zeuden eta duela urtea Xabier Amurizari gogora jin zitzaion bilketa baten egitea.

Xede hori jakin orduko, Euskal kultur erakundeak bere sustengua eta diru laguntza proposatu zizkion Amurizari eta joan den urrian, Behobian aurkeztu zigun : "Xalbador, bat-bateko mirakuilua".

Xalbador-Amuriza ! Bertsularitzaren zerbitzurako nor hoberik ? Zinezko bertsularitzaren ezagutarazteko eta maitarazteko, ez dute parerik !

Gainera, bertsularitza kantuzko hitza izanez, erdiz-erdi sartzen da hain xuxen Euskal kultur erakundeak kudeatuko duen "Kantuketan" proiektu handian, euskal kantua dela eta, hanbat eta hanbat ekintza obratuak izanen baitira.

Eta beraz, udaberri honetan berean, Xabier Amurizaren errezital berria gozatzen ahalko dugu bost aldiz iparraldean. Errezitalarekin batera, derragun lan pedagogiko bat eginen duela bai irakasleekin, bai ikasleekin, halaber bertsularitza hobeki barnatu nahi dutenekin.

Egitaraua / Programme

Atharratzen / Tardets

Martxoaren 5ean, 21.00etan. Tokiko antolatzailea : Uhaizta.

Izurana / Ostabat

Martxoaren 14ean, 16.30etan. Tokiko antolatzailea : Haize Berri.

Aldude / Les Aldudes

Apirilaren 30ean, 21.00etan. Baigorriko kultur astearren barnean.

Tokiko antolatzaileak : Basaizea eta Aldudarrak Batasuna.

Kanbo / Cambo-les-Bains

Apirilaren 8an, Xalbador Ikastegian, 13 urtekoentzat bi emanaldi.

Apirilaren 9an, Xalbador Ikastegian, 14 urtekoentzat bi emanaldi.

Xalbador - Amuriza : honneur à l'improvisation chantée


S'il fallait mettre en évidence une particularité de la culture basque, nous mentionnerions à juste titre le bertsularisme ou l'art de l'improvisation versifiée qui, en Pays Basque, atteint les sommets de la perfection. Et en l'évoquant, nous entrons directement dans le domaine du chant car le poète-improvisateur chante généralement ses vers devant un auditoire.

Toute improvisation court le risque que le vent l'emporte et tombe à jamais dans l'oubli. Toutefois, les meilleures compositions ont survécu à l'usure du temps et nous sont parvenues de bouche à oreille ou grâce à quelques fervents bascophiles qui ont pris soin de les transcrire.

Ainsi, Xabier Amuriza a-t-il eu l'idée de collecter de nombreuses improvisations du grand Xalbador qui, de son vivant, avait parcouru les principales places du Pays Basque. Xabier Amuriza étant lui-même deux fois champion du concours général d'improvisation, on ne pouvait rêver meilleur ambassadeur du génial barde d'Urepel.

L'Institut culturel basque a été immédiatement séduit par cette initiative et a accepté de la soutenir financièrement. En effet, elle entre parfaitement dans le cadre du projet "Kantuketan", rendez-vous du chant basque, qui s'étalera sur plusieurs années.

Dès ce printemps, Xabier Amuriza présentera son nouveau récital "Xalbador : bat-bateko mirakuilua" ("Xalbador: le miracle de l'improvisation") à cinq reprises, en collaboration avec les associations partenaires de l'Institut culturel basque. Au-delà du récital, un travail de formation sera réalisé auprès des enseignants, des collégiens et de tous ceux qui souhaitent approfondir l'art de l'improvisation chantée.



PROJET 99 DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE : PENSER, AGIR, ÉCHANGER

Le 19 décembre dernier, Pantxo ETCHEGOIN, directeur de l'Institut Culturel Basque, présentait devant le Conseil d'Administration son projet pour l'année 1999. Un projet qui, à la veille de l'an 2000 et du dixième anniversaire de l'I.C.B., se veut résolument tourné vers l'avenir, porteur de réflexion, initiateur d'une dynamique culturelle et générateur de rencontres.

Plus encore qu'hier, il semble aujourd'hui urgent de penser la culture basque de demain. L'approche du nouveau millénaire et l'entrée dans un siècle naissant exigent en effet de faire le tour d'horizon de certaines questions fondamentales, et imposent des remises en question, incontournables à plus ou moins long terme. Guidée par cette exigence, la politique culturelle de l'Institut dans les mois qui viennent n'aura de cesse d'articuler sa mission autour de trois axes de travail : réflexion, action, dialogue.

Une culture pour le futur

Prévoir demain, c'est débattre aujourd'hui. Poser publiquement les interrogations qui sont d'ores et déjà dans tous les esprits. D'où la nécessité de provoquer la rencontre entre, d'une part, tous ceux qui font et vivent la culture basque aujourd'hui, et d'autre part, les autres acteurs de la vie économique, sociale et politique de ce pays. "Quelle culture basque pour le 21ème siècle ?" sera le thème du colloque qui les réunira deux jours durant, à l'initiative de l'Institut Culturel, en automne prochain. Un forum qui devrait permettre à l'I.C.B. de nourrir sa réflexion et de mieux définir ses orientations futures. Le regard des jeunes sera bien évidemment l'objet d'une attention toute particulière : ainsi, durant ce colloque, plusieurs équipes d'étudiants du B.T.S. audiovisuel Cassin de Bayonne réaliseront des reportages sur différents thèmes destinés à alimenter les débats. Et dans le prolongement du débat sur les jeunes et l'identité basque proposé lors des Journées du Patrimoine, la question de la place de la culture basque dans l'espace urbain sera également abordée à l'occasion de plusieurs tables rondes organisées en différents lieux.

Des outils pour que vive l'euskara

Préserver et promouvoir aujourd'hui la langue basque pour qu'elle vive demain : là encore, l'Institut Culturel Basque poursuit une mission considérée comme prioritaire. Afin d'évaluer la pratique de l'euskara chez les jeunes, une enquête socio-linguistique sera notamment réalisée auprès de 500 élèves âgés de 13/14 ans, en partenariat avec la Communauté Autonome Basque et la Communauté Forale de Navarre. Autre initiative, émanant de la Communauté Autonome voisine : la mise en place d'un réseau d'agents de la politique linguistique. Le projet consiste

à faire se rencontrer agents et organismes de la normalisation linguistique de différentes communautés d'Europe, afin qu'ils élaborent ensemble des projets communs. Enfin, l'exposition "Euskararen hatsa - Présence de la langue basque" sera plus particulièrement proposée, dans les collèges, lycées et centres culturels. Elle fait actuellement escale dans les locaux du Conseil Régional d'Aquitaine - du 18 février au 5 mars - grâce à une collaboration de l'ICB avec l'Euskal Etxea de Bordeaux.

Encourager la création

L'Institut Culturel Basque sera cette année encore aux côtés de ceux qui franchissent le pas de la création. Trois productions retiendront notamment l'attention : dans le domaine de la musique, Pier Pol Berzaitz proposera un nouveau spectacle contemporain, "Euskal Spiritu", qui réunira sur scène 50 chanteurs et danseurs, sur des textes d'Itxaro Borda et une mise en scène de Jean-Marie Broucaret (voir "Hauxe diote" p.3). La compagnie de théâtre Oztibarreko Antzerkia présentera une pièce de Mattin Hirigoyen "Hautsi da kristala". Enfin, la Compagnie Bordaxuri rendra hommage au poète Manex Erdozaintzi-Etxart avec un récital de textes interprétés et chantés, "Lur ezpalak".

Renforcer l'éducation artistique

Egalement au coeur des préoccupations de l'Institut Culturel Basque, les questions d'éducation et de formation. Dispensée en milieu scolaire ou extra-scolaire, l'éducation artistique est indispensable à l'enrichissement et à la transmission de la langue et des différentes expressions artistiques basques. Ainsi, de nombreuses initiatives seront soutenues au cours de l'année 99 : ateliers de théâtre dans les écoles et collèges, ateliers de chant (choeurs d'enfants, découverte musicale, apprentissage des techniques vocales...), ateliers de lecture et d'écriture, interventions d'écrivains dans les classes, cours du soir d'improvisation et stages-rencontres avec des bertularis (improvisateurs) confirmés, ateliers chorégraphiques de danse traditionnelle ou contemporaine.

L'année des festivals

Pas moins de cinq festivals seront soutenus par l'Institut Culturel Basque en 1999, dont trois organisés par l'association Herri Soinulariak : "Hartzaro" (Ustaritz), "Xiru" (Gotein), "Errobiko festibala" (Itxassou). Fil

conducteur de ces trois événements : la présence du poète musicien Joxan Artze qui fera retentir le son de la txalaparta, travaillera avec les enfants sur le thème de la transhumance, ou encore évoquera son univers poétique (voir "Behakoa" p.3). Le quatrième rendez-vous festivalier est désormais incontournable pour tous ceux qui ont soif de rencontres entre les peuples et les cultures : "Euskal Herria zuzenean" aura lieu cette année encore à Saint-Martin-d'Arrossa, organisé par l'association Piztu. Enfin, le 4ème Festival d'Otxote (chœur composé de huit membres) se déroulera à Cambo les 7 et 8 mai prochains.

Au-delà de ces manifestations qui marqueront cette année encore la vie culturelle en Pays Basque, il convient de souligner le rôle déterminant des structures culturelles de proximité réparties sur les trois provinces du Pays Basque nord : Uñaitza en Soule, Haize Berri et Garazikus en Basse-Navarre, Eihartzea ou encore Oinarria en Labourd. En aidant à la diffusion de la culture, en soutenant les artistes, en s'impliquant dans des projets d'intérêt général où la culture a sa place, elles constituent de véritables lieux de vie et de ressources avec lesquels il faudra compter dans une perspective d'aménagement du territoire.

Ouverture et communication

L'Institut Culturel Basque ne saurait concevoir de politique culturelle sans cette dimension de communication qui donne un véritable sens à son travail. L'ouverture se fera en direction de nouveaux partenaires culturels et institutionnels : notamment en multipliant les supports d'information leur permettant une meilleure approche de la culture basque (poursuite de la publication du bimestriel "Leihotik", diffusion du Guide du Patrimoine réactualisé...). Elle se fera également vis-à-vis de partenaires naturels : les centres culturels du Pays Basque sud et grâce à une collaboration active avec l'Euskal Etxea, des manifestations culturelles seront proposées à Bordeaux.

En matière de communication médiatique, l'audio-visuel sera tout particulièrement soutenu, notamment les radios d'expression basque pour la réalisation d'émissions

culturelles communes, et la télévision par le biais du magazine "Iparraldea", diffusé sur ETB 1. La culture basque se doit d'explorer également les nouvelles technologies : outre le développement du site Internet de l'I.C.B., une réflexion sera conduite d'une part avec les associations culturelles partenaires afin de faire connaître l'ensemble des actions culturelles via ce réseau, d'autre part avec les institutions, avec pour objectif de trouver des passerelles entre différents sites existants.

Kantuketan : un pari majeur

Tout en poursuivant sa mission d'écoute et de soutien des associations, l'Institut s'engage aujourd'hui sur un projet spécifique et pluriannuel, "Kantuketan", dont le thème sera le chant et la musique basques. Vaste chantier qui réunit d'ores et déjà de très nombreuses compétences et qui devrait donner naissance, dès la fin de l'an 2000, à une exposition sonore itinérante s'accompagnant de nombreuses animations. Dès cette année, un certain nombre d'événements culturels s'inscrivent dans ce projet : notamment la co-édition d'un livre de chants de Michel Labèguerie, le cycle de conférences "Hitzak Mintzo" consacré au thème du chant basque, la réalisation d'une vidéo rendant hommage au poète-chanteur contemporain Eñaut Etxamendi, et d'un documentaire basé sur la création artistique de Jean-Michel Bedaxagar, musicien chanteur souletin.

Ce projet, parce qu'il entend révéler l'une des facettes les plus sensibles et les plus significatives de la culture basque, implique un véritable travail de fond et suppose une mobilisation de toutes les énergies. Réussir le pari, ce pourrait être offrir à tous, à travers le travail accompli, une sorte de miroir de l'âme basque. Un miroir grâce auquel certains pourraient se réconcilier avec leur image, d'autres apprendre à mieux se connaître, et d'autres enfin pourraient simplement goûter le plaisir de la découverte. L'objectif à atteindre mérite décidément de penser, d'agir et d'échanger, dès aujourd'hui et au-delà de l'an 2000.



"L'éducation artistique des enfants est la création de demain" (Ici, Pantxika Telleria dans un atelier danse)

BEHAKOA



JosAnton ARTZE Hitz ehulea

Aurten, bere txalapartaren soinua entzuteko aukera izanen dugu. Bere olerkiak gozatzeko parada ere. Euskal Kultur Erakundea eta Herri Soinulariak elkarteari esker, JosAnton ARTZEK, Usurbileko olerkariak esperientzia berezi bat eramanen du Ipar Euskal Herrian, urte guzian. Bere "erresidentzia"

Uztaritzeko Hartzaro festibalarekin hasi da, urtarrilean. Beste bi jaialdirekin segituko du : Xiru eta Errobiko festibala.

Zergatik onartu duzu Ipar Euskal Herriko festibaletan parte hartzeko proposamena ?

Alde batetik Iparraldeko jendearekin eta lagunekin lan egiteko gogoagatik, eta horrelako lan proposamena, elkarrekin lan egite hori aberasgarria izan zitekeelako denontzat. Iparraldean egiteak gainera poz berezi bat ematen digu, hain zuzen gure kulturaren zati inportanteenetako bat Iparraldean daukagulako historikoki, bai olerki aldetik, nola kanta, musika eta dantza aldetik. Hortik edan dugu, eta edaten jarraitzen dugu. Normala da edan duguna bueltan itzultzea.

Ipar Euskal Herriko kultur munduak kreaizaileak eskas omen ditu. Zer iduritzen zaizu ?

Kreaizaile aldetik, uste dut elementu oso inportanteak badaudela : adibidez Etxamendi idazle eta olerkari handia da, haundienetakoa gure herrian, nahiz eta hain ezaguna ez den. Eta hortik kanpo ere, oso idazle onak daude Ipar Euskal Herrian : Hiriart-Urruti, Daniel Landart, Jünes Cazenave, besteak beste. Guk baino hizkuntza jasoagoa edo tradizio gehiago dutelako, iduritzen zait Iparraldean errexago ateratzen dela oso ondo idazten duen jendea. Eta musikari bezala, Mixel Etxekopar artista handia da ere. Kreaizaileak badaude : baina nork ezagutzen ditu ? Kreaizaile falta baino gehiago dago ezagutza falta.

Olerkia lehen baino onartuagoa da gaur egun ?

Nik gehiago aurkitu dudana da olerkiak desprestigio handi bat daukala jendearen artean, eta alde batetik justifikatua... Zergatik ? Idazten den olerkia ulergaitza delako guziz, olerkariak berak ere ez du ulertzen zer esan nahi duen besteak beste idatzi duena. Nik uste dut lehenik arteak behar duela ulergarria izan. Esan nahi dut arte mota horrek eduki behar duela hizkuntza bat, beste batek ulertzeko zubi bihurtuko duen zerbait. Gero, horren sakontasunean barrentzeko, norberaren gain dago. Eta nolabait, desprestigio horren aurka lan egin dugu 30 urtez, eta ni ahalegindu naiz gauzak ahalik eta ulerterrexenak jendeari ematen. Gero, jakin behar da nolako gaiak erabiltzen diren. Guztiei dagozkien gaiak behar ditu arteak unibertsala izateko.

Nola egin gazteek interesa aurki dezaten olerkian ?

Gazteak nolabait olerkian aurkitu behar du bere burua ezagutzen lagunduko dion zerbait, bere nortasun sakon horri buruz hitzegingo duen zerbait edo hori argituko diona. Idazten duenaren erresposabilitatea zerbait sakon idaztea, besteek ikusten ez dutena erakustea eta besteek ulertzen ez dutena ulergarri bihurtzea da. Hori egingo bagenu, gazteak interesa sentituko luke horretan. Eta gaztearen erresposabilitatea olerkia irakurtzea da : horrek esan nahi du bere burua deskonektatu behar duela telebistatik, liburu bat hartu, eta saiatu liburu horretan zerbait aurkitzen. Horretarako konfiantza pixka bat eduki behar du liburu horretan aurkituko duela berak bilatzen duena.

Berrikitan diska eta liburu berriak argitaratu dituzu, "Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat" izenburupean...

Diska, ikuskizunaren grabaketa da. Eta diskan dauden olerkiak liburu batean idatziak eman ditugu. Liburu horretan agertzen dira ere poemaldiaren argazkiak eta osagarri bezala, ikuskizunean ez zeuden beste olerkiak. Eta hor agertzen dira beti tratatu ditudan gaiak : gizakia bizitzaren aurrean, heriotzaren aurrean, munduaren aurrean, bere ingurukoan artean, bera bere baitan. Lan hori Errobiko festibalean aurkezteko asmoa dugu.

Hauxe diote

Pier-Pol Berzaitz

musikari, kantari, ikusgarri sortzaile



Jean-Louis Davant-en testoen medioz.

Zer da "Euskal Spiritu" ikusgarria ?

Züberoan kantari eta dantzariak baliatzen dute beren talendua pastoral edo maskaradaren bidez. Haietarik zonbaitekin nahi izan dugu egin ürrats bat aitzina ikuskizun berri baten arartez. Profesionalismo mailaren ondoan, pentsatzen dut gauza beharrezkoa dela amaturrek ere ukan dezaten horrelako lanen antolatzeke asmoa. Mende berriaren karia sustatzeko txinka eta abiada. Gero bi eskolen lagungoarekin deliberatu gira.

Fedea, erlijioa, izpiritueltasuna... Zergatik hautatu dituzu gai hauek ikusgarri baten sortzeko ?

Egia da gai horiek badutela mementoan arrakasta bazterretan ! Gure xedean, izpiritueltasuna erlijioa baino gehiago aipatzen dugu, esi (zeren) Euskal Herrian, ene belaunaldia eraikirik izan baita ildo horretan. Artisten libertatearekin, nahi izan dugu erakutsi populu baten arnasa bidean lurralde hitzemaneren ondotik. Biblean baditugu tema horretaz leihu asko. Gutarik bakoitzak ez ote du bilatzen egunero bere Jerusalem eta zeharkatzen maiz Emmauzeko bidea ? Gauza serioak bena

gure garaipena dantzaz eta kantuz eginaz geroz poesia pasatzen da bereziki Ixaro Borda eta Jean-Louis Davant-en testoen medioz.


Gaur egungo ikusgarri anitzek bezala, mestizaje kulturalak proposatuko ditu zure kreaizaioak ?

Mestizajea bizia da. Ez gira deuseren jabe eta biziaren kadena luze horretan aberasten gira denak beti gure diferentzietaz. Euskal Herrian burasok utzirik badugu kultur sustrai amiragarria. Eginbide horren aitzina biziartzera eta ber denboran apaintzera gaurko koloreekin. Aro bakoitzak ekartzen du holaz bere aberastasuna eta bilakaera. Ene ustez, ez dute zentzu handirik gauza horietan integrisimo gogor baten printzipioek, "salbatu" beharrez argi eta garbi leheneko ohidurak, ez delarik ber manerala dantzatzeko Sohutatik Barkoxera ! Euskal Spiritu ikusgarrian adibidez nahi ditugu gurutzarazi dantza mota desberdinak, ez dut erraiten modernoak eta klasikoak, baizik eta jenero diferentiek.

Ce qu'ils en pensent

Jean-Yves Ostrowiecki

Trésorier de Garazikus



"Vaine agitation ?

L'offre culturelle n'a jamais été aussi importante, mais si l'on n'y prend garde elle aura tôt fait de se cantonner dans un créneau hyper médiatique où Reine Télé, principalement, sera toute puissante. De plus cette

offre ne sera axée que sur une consommation de masse, passive... sinon "avachie".

Pourtant la création et la pratique culturelle, en plus des plaisirs qu'elles procurent sont, à nos yeux, un des enjeux de la citoyenneté de demain, faite de tolérance, d'ouverture d'esprit... : les "Front national" l'ont bien compris et sabrent à tout va dans le budgets culturels des institutions dont ils ont pris le contrôle.

Depuis l'an dernier, dans le cadre du schéma d'aménagement du Pays Basque intérieur, quelques associations se sont résolument engagées dans une politique d'animation culturelle : associés ou non à la diffusion de spectacles, se multiplient ateliers de pratique, rencontres des artistes, hors spectacle, stages de formation pour tout public, parcours culturels en milieu scolaire. Et ÇA MARCHE !

Ainsi, certains spectacles qui étaient mal connus ou ignorés sont retenus par des comités de fêtes locaux, ainsi se créent des rencontres interculturelles aboutissant à un savant mélange de danses traditionnelles et de hip-hop, ainsi se

créent des groupes de jeunes qui longtemps après le passage d'artistes dans leur établissement scolaire se retrouvent de façon informelle pour affiner leur nouvelle pratique, ainsi le jeune public apprend à décrire la soupe culturelle dont il est abreuvé, ainsi bien sûr le nombre de spectateurs augmente, ainsi enfin, nous le croyons, se prépare pour l'avenir un intense vivier créatif.

Il ne faut pas oublier d'intégrer largement dans ces programmes d'animation, la culture et les artistes basques, piliers à mes yeux, d'une identité vitale : tout reste à faire pour ceux qui veulent en faire profession. Que penser du faible écho que rencontrent chez eux les excellents Koldo Amestoy ou Txomin Hégué et Olatz Beobide, dans leur pièce "Haurra xutik" ...?

Faire mieux connaître ces artistes, favoriser davantage la pratique de la culture basque et son enrichissement au contact des autres cultures, sont aussi des enjeux de ces animations. Demain, ce pourrait ainsi, autant de joyeuses épines enfoncées profondément et durablement dans une culture mondialiste uniforme... et effrayante...

Alors, bien sûr, on peut penser que les pouvoirs publics ne vont pas assez loin et assez vite. Pour l'heure, nous bougeons, nous animons, en invitant toutes les bonnes volontés à nous rejoindre.

A bon agitateur culturel, salut !

- 18 - 21 h - Uztaritze / Ustaritz (salle Lapurdi gela) :** mintzaldia/ ikusgarria Joxan Artze olerkariarekin *récital et entretiens en basque.*
- 19 - 21 h - Baiona / Bayonne (Antzokian - au Théâtre) :** Antzerkia / Théâtre *"Et ils passèrent des menottes aux fleurs" "Petit théâtre de pain" taldea.* Xehetasunak / Renseignements 05 59 59 07 27
- 19 - 21 h - Biarritz (Salle "Colisée" gela) :** Théâtre "Beherearta" antzerkia Xirixti-Mirixti taldeak emanik
- 20 - 21 h - Maule / Mauléon (cinéma "Maule Baitha" zinegela) :** Kantaldia / Concert avec Naia Robles, Urbil & Txomin Artola
- 26 - 21 h - Donapaleu / Saint-Palais (cinéma "Saint-Louis" zinegela) :** Récital "Lur ezpalak" par la compagnie Bordaxuri taldeak emanik
- 26 - 21 h - Izpura / Ispoure (salle "Faustin Bentaberri" gela) :** *"Et ils passèrent des menottes aux fleurs" antzerkia / Théâtre par la compagnie Le Petit Théâtre de pain taldeak emanik*
- 27 - 21 h - Biarritz (Salle "Colisée" gela) :** "Kantu goxoak Biarritzen". Concert Anje Duhalde kontzertua
- 28 - 17 h - Biarritz (salle "Le Colisée" gela) :** Récital "Lur ezpalak" par la compagnie Bordaxuri taldeak emanik

MARS / MARTXOA

- 4 - 21 h - Uztaritze / Ustaritz (salle Lapurdi gela) :** mintzaldia/ conférence en basque par Jean Haritschelhar : "Topet-Etxahunen berezitasuna euskal kantuan"
- 5 - 21 h - Tardets / Atarratze (salle Sivom gela) :** Récital "Xalbador bat-bateko mirakulua" avec Xabier Amuriza
- 5 - 21 h - Biarritz (Casino municipal) :** opéra "Le barbier de Séville"
- 6 - 20 h - Itsasu / Itxassou (Hôtel du Chêne) :** Bertsu afaria, Peñagarikano, Irazu eta Jean-Pierre Mendibururekin
- 18 - 21 h - Uztaritze / Ustaritz (salle Lapurdi gela) :** mintzaldia/ conférence en basque par Joseba Etxarri "Euskaldun amerikanoen kantua"
- 19 → 28 - Korrika (iparraidean martxoaren 20an / le 20 mars au Pays Basque nord)**
- 23 → 27 - Biarritz (salle "Le Colisée" gela) :** *Semaine culturelle "Bi harriz lau xori" kultur astea :* la Biscaye à l'honneur. Conférence, expo, danse, concert Kepa Junkera, soirée littéraire Aresti-Sarrionandia, ...
- 26 - 27 - 28 - Gotaiñe / Gotein :** 10. Xiru festibala / 10ème édition du festival Xiru. Kent Carter, Beñat Achiary, Maddi Oihenart, Michel Serge Pey, chanteurs de Sardaigne...
- 27 - 21 h - Kanbo / Cambo (AIEC gela) :** Théâtre "Beherearta" antzerkia Xirixti-Mirixti taldeak emanik
- 28 - Egun guzian / Toute la journée - Donibane-Lohizune / Saint-Jean-de-Luz :** Kantuaren eguna

APIRILA / AVRIL

- 5 - Egun guzia / Toute la journée - Sara / Sare :** Idazleen biltzarra / *Biltzar des écrivains du Pays Basque, avec 18 h 30, conférence en basque de Jon Cazenave sur l'écrivain Jean Etchepare.*
- 5 - 16 h - Onizegaina / Abense-de-Haut :** Haur kantu xapelketa (Xiberoko final-erdia / *demi-finale de Soule*)
- 9 - 21 h - Izpura / Ispoure (Salle Faustin Bentaberri gela) :** Ballets de Biarritz, Compagnie Thierry Malandain
- 10 - Kanbo :** Txistularien eguna
- 21 → 25 :** *Fêtes musicales de Biarritz :* Euskadiko orkestra, Philippe Entremont et orchestre de Malaga, Rinat Shaham, Orchestre régional Bayonne côte basque. Xehetasunak / Renseignements : 05 59 22 20 21
- 30 - 21 h - Urruña / Urrugne :** Théâtre "Beherearta" antzerkia Xirixti-Mirixti taldeak emanik

EZ AHANTZ... EZ AHANTZ... EZ AHANTZ... / A NE PAS OUBLIER

Idauze-Mendiko maskarada/Mascarade de *Idaux-Mendy* : le 21 février à Musculdy, le 28 février à Roquiague, le 7 mars à Menditte, le 14 mars à Licq, le 21 mars à Mauléon, le 28 mars à Ordriard, le 4 avril à Barcus, le 11 avril à Larrau

Euskal kultur erakundearen biltzar nagusia Izpurako "Faustin Bentaberri" gela, 1999ko martxoaren 27an, larunbatarekin, goizeko 10etan / A.G. de l'I.C.B. le 27 mars 1999

Biarritz (salle "Bellevue" sala) - Apirilaren 5etik maiatzaren 13a arte / du 5 avril au 13 mai 1999 : Bram Bogart-en erakusketa / Exposition de Bram Bogart

Baiona / Bayonne (Musée Basque) : Exposition "Pilota gogoan" erakusketa ouverte jusqu'au 31 mars 1999.

QUESTION A...

Christine ETCHEVERS MINTZO

Quel est l'apport de l'art contemporain à la culture basque ?



Tout d'abord, un enrichissement de son patrimoine. La culture basque a un passé et une identité forte qui peut permettre l'épanouissement d'une création de grande qualité : on pourrait citer par exemple des créateurs comme Chillida qui est un des plus grands sculpteurs de notre temps, connu et montré dans tous les musées du monde. Il est l'un des chefs de file de l'art contemporain basque. On a souvent tendance à nous montrer la culture basque limitée à des clichés de notre folklore que par ailleurs j'aime beaucoup. L'art contemporain peut être une grande ouverture vers le monde et sert souvent à poser des

questions essentielles et importantes comme l'ont fait Picasso (à travers "Gemika") et l'artiste contemporain basque Oteiza par son magnifique travail sur l'âme basque et la comparaison entre l'art préhistorique et actuel ("Quousque tandem" Oteiza, éditions Pamiela). L'art évolue avec l'histoire de l'homme et rend la culture vivante.

Dans l'histoire de l'art il y a toujours eu un décalage entre l'art du moment et la perception du public. Actuellement rien n'a changé. L'art actuel n'est bien perçu qu'un siècle plus tard comme pour l'impressionnisme.


Il y a une pépinière d'excellents artistes contemporains au Pays Basque sortant souvent des écoles des Beaux-Arts de Bayonne, Bordeaux, Bilbao, Toulouse, Paris et autres. Il serait dommage de les ignorer.

Christine Etchevers vit et travaille à Cambo.
A exposé à Bayonne, Galerie Arbre du 13 janvier au 13 février 1999.
Exposition future : en novembre à Ordizia (Gipuzkoa).

Euskal kultur erakundea

Internet-ean da

L'Institut culturel basque est sur Internet



Euskal kultura komunikabide modernoetan sartu nahian, Euskal kultur erakundeak gune bat ideki du Internet sarean.

Lehen urrats bezala, gure egitura aurkeztu dugu, haren eginbeharrak agertu, bai eta ere 80 bat kultur elkartekideen helbide eta telefono zenbakiak. Erran gabe doa gure Web orrialdea aberastuko dugula ondoko egunetan. Entseatuko gara ere zubi batzuen egitea beste erakundeetako internet guneekin.

Vu l'importance des nouvelles techniques de communication dans la diffusion de l'information, l'Institut culturel basque a ouvert un site dans le réseau Internet.

Dans un premier temps, nous y avons intégré une présentation de notre organisme, ses objectifs, ainsi qu'une liste, avec coordonnées téléphoniques de près de 80 associations membres de l'I.C.B. Ce site, conçu par la Sté Phillips Internet, sera enrichi quotidiennement. Des passerelles seront également créées avec d'autres sites gérés par des associations ou des institutions du Pays Basque.

Gure orrialdeak ikusteko

Pour nous consulter

<http://www.eke.org>

Idazteko

Pour nous écrire

[e-mail : eke@wanadoo.fr.](mailto:eke@wanadoo.fr)

"Leihotik" N° 7 -

1999ko Urtarrila-Otsaila / Janvier-Février 1999
Euskal kultur erakundearen berripapera
Bulletin d'information de l'Institut culturel basque
I.S.S.N. : 1276 - 4779

Directeur de la publication : Pantxoia Etchegoin
Rédaction : Kattalin Totorika, Daniel Landart
Photos : Jean-Claude Broca, Pierre Ruaud
Maquette et impression : André Larré - Bayonne

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE
Lota jauregia / Château Lota
64480 UZTARITZE/USTARITZ
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax 05 59 93 06 84